

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**10/2016 Foru Araua, abuztuaren 2koa, ELGaren baitan hartutako hainbat konpromiso foru zerga ordenamendura txertatzeko eta Europar Batasuneko hainbat zuzentarau betetzeko uztailaren 19ko 3/2016 zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko dena**

Arabako Batzar Nagusiek, Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2016ko abuztuaren 2an egindako bilkuran, ondoko foru araua onetsi dute:

10/2016 Foru Araua, abuztuaren 2koa, ELGaren baitan hartutako hainbat konpromiso foru zerga ordenamendura txertatzeko eta Europar Batasuneko hainbat zuzentarau betetzeko uztailaren 19ko 3/2016 zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko dena.

#### HITZAURREA

6/2005 Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko Foru Arauaren 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, uztailaren 19ko 3/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ELGaren baitan hartutako hainbat konpromiso foru zerga ordenamendura txertatzeko eta Europar Batasuneko hainbat zuzentarau betetzeko dena.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak baliozkotze-akordioa hartuta, Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudiaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru-araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da 3/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 19koa, ELGaren baitan hartutako hainbat konpromiso foru zerga ordenamendura txertatzeko eta Europar Batasuneko hainbat zuzentarau betetzeko dena.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 2a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**